DERIOKO UDALA

**2015EKO UZTAILAREN 21EAN KORPORAZIO HONEN OSOKO BILKURAK EGIN DUEN OHIKO BILERAREN AKTA**

Derioko Elizatean eta Udaletxeko Bilkura Aretoan, 1. Deialdian, bilkura arrunta egiteko, honako hauek bildu dira:

**Bertaratuak**

Alkate-udalburua.-
Esther Apraiz Fernandez de la Peña and.

EAJ-PNV udal talde politikoa

Ixone Urrutikoetxea Ukar andrea
Nekane Aiarza Zallo andrea
Endika Cienfuegos Salvador jauna
Iker Iturrate Ibarra jauna
Maite Bolumburu Olabarrieta andrea

EUSKAL HERRIA BILDU DERIO UDAL TALDEA

José Ángel Aurrekoetxea Aperribai jauna
Mari Carmen Álvarez Palencia andrea
Alberto Intxausti Mauraza jauna
Sorkunde Otxoa Anakabe andrea

SOCIALISTAS VASCOS UDAL TALDEA

Alpiniano González Gómez jauna
Clementino Caballero Monge jauna
Alicia González Mencía andrea

**Bertaratu ez diren Zinegotziak**.-.

IDAZKARIA.-
Belén Renobales Sanjines and.

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE ESTA CORPORACION EL DIA 21 DE JULIO DE 2015**

En la Anteiglesia de Derio y en el Salón de Sesiones de su Casa Consistorial se reúnen en 1ª Convocatoria para celebrar sesión ordinaria, las siguientes personas:

**Concejales asistentes**.- .

Alcaldesa-Presidenta.-
Dña. Esther Apraiz Fernandez de la Peña

Grupo Político Municipal EAJ-PNV

Dª Ixone Urrutikoetxea Ukar
Dª Nekane Aiarza Zallo
D. Endika Cienfuegos Salvador
D. Iker Iturrate Ibarra
Dª Maite Bolumburu Olabarrieta

EUSKAL HERRIA BILDU DERIO UDAL TALDEA

D. José Angel Aurrekoetxea Aperribai
Dª Mari Carmen Alvarez Palencia
D. Alberto Intxausti Mauraza
Dª Sorkunde Otxoa Anakabe

GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTAS VASCOS

D. Alpiniano Gonzalez Gomez
D. Clementino Caballero Monge
Dª Alicia Gonzalez Mencia

**Concejales ausentes**.-

SECRETARIA.-
Dª Belen Renobales Sanjines

Batzordeburuak 18:00etan bilkurari hasiera eman dio honako aztergaiekin:

Abierta la sesión por la Presidencia, a las 18:00 horas, se pasa a examinar el siguiente orden del día

1- Ezagutzera ematea azken Osoko Bilkuratik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak.

2- Alkatetzako txostenak.

3- Presazko mozioak.

4- Erregu eta galderak.

1- Conocimiento de las Resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el último Pleno celebrado.

2- Informes de la Alcaldía.

3- Mociones de Urgencia.

4- Ruegos y preguntas.

------------------------

------------------------

**1.- <u>Ezagutzera ematea azken Osoko Bilkuratik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak.</u>**

Ebazpen horiek dagozkien liburuetan, **295.** zenbakitik **471.** zenbakira bitartean erregistratuta egon eta Zinegotzien eskura daude Udal Idazkaritzan.

Osoko Bilkura guzti horren jakitun geratu da.

**1.- <u>Conocimiento de las Resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el último Pleno celebrado</u>.**

Se da cuenta de que dichos actos aparecen registrados en el libro correspondiente con los números del **295** al **471**, quedando a disposición de los Sres. Corporativos en la Secretaría Municipal.

Quedando el Pleno enterado de todo ello.

**2.- <u>Alkatetzako txostenak</u>**

Alkate andreak hitz egin eta esan du aste honetan Lanbiderekin harremanetan jarri dela Txorierri mugikor puntu bat jarri dela jakinarazteko. Horrek orientabide zerbitzua emango du 9etatik 13etara, jendea zerbitzu hori ezagutu dezan. Halaber, esan du, gaur kontratazio mahaia izan dela, lizitatzaileen eta batzordekideen C gutun-azala irekitzeko, honako espedienteetan:

**2.- <u>Informes de la Alcaldía</u>**

Toma la palabra la Sra. Alcaldesa y comunica que esta semana se ha puesto en contacto Lanbide para informarle de la puesta en marcha de un punto móvil en el Txorierri que sirva como servicio de orientación y en horario de 9 a 13 horas, en definitiva se trata de que la gente conozca el servicio, asimismo, indica que en el día de hoy se ha celebrado la mesa de contratación para la que fueron convocados los licitadores y vocales para

la apertura del Sobre C siguientes expedientes:

- Esp: 215.13/2015, Errementariñe sektorean lurzoruaren saneamendu jarduketak egin eta arriskugarri bezala klasifikatu diren lurren indusketa, garraio eta kudeaketa lanak egiteko eta obrak gauzatzeko isurtegian.

- Exp: 215.13/2015, Ejecución de obras y trabajos de excavación, transporte y gestión en vertedero de materiales escavados clasificados como no peligrosos procedentes de la actuación de saneamiento de suelos en el Sector Rementariñe.

- Esp: 215.32/2014, Errementariñe sektorean lurzoruaren saneamendu jarduketak egin eta arriskugarri ez izan baina materialen kontzentraziotik gorako analitika duten lurren indusketa, garraio eta kudeaketa lanak egiteko eta obrak gauzatzeko isurtegian

- Exp: 215.32/2014, Ejecución de obras y trabajos de excavación, transporte y gestión en vertedero de materiales escavados cuyas analíticas superan las concentraciones establecidas para los residuos no peligrosos procedentes de la actuación de saneamiento de suelos en el Sector Rementariñe.

Onartutako proposamenak baloratu ondoren, balorazio irizpideak eta neurritasun sistemaren arabera, 215.13/2015 espedientean esleitu zaio FCC, AMBITO, S.A. enpresari; eta 215.32/2014 espedientean esleitu zaio FERROVIAL SERVICIOS enpresari.

De lo que resulta que una vez valoradas las proposiciones admitidas según los criterios de valoración y sistema de ponderación en el expediente 215.13/2015 resulta adjudicatario la empresa FCC, AMBITO, S.A.; y del expediente 215.32/2014 resulta adjudicataria la empresa FERROVIAL SERVICIOS.

Eta azkenik, Mankomunitateak informatu du Enplegu Eskualdeko Plana eskatu duela, eta Deriori honakoak dagozkiola: brigadako langile bat eta administrari laguntzaile bat lau hilabeterako. Prozesu osoa LANBIDEk eramaten du. Eusko Jaurlaritzak baldintzak jartzen ditu: brigadako langileak diru sarrerak bermatzeko errenta jaso beharko du, eta administrari laguntzailea emakumea izan beharko da. Dena den, lanpostu horientzat eskatzen diren nolakotasunak daude Egaz-en.

Y por último, desde la Mancomunidad se informa que se ha solicitado el Plan Comarcar de Empleo y a Derio le corresponde un personal de oficios y un auxiliar administrativo, por un período de cuatro meses, todo el proceso se lleva a cabo desde LANBIDE y es el Gobierno Vasco el que pone las condiciones, entre otras, para el peón que perciba la renta de garantía de ingresos y la auxiliar administrativo deberá ser mujer, no obstante, en Egaz se encuentran las características exigidas para dichos puestos de trabajo.

**3.- Presazko mozioak.**

**3.- Mociones de Urgencia.**

Moziorik aurkeztu ez denez, Eguneko Aztergaien Zerrendako hurrengo gaia jorratu da.

No formulándose moción alguna se pasa al siguiente punto del Orden del Día.

**4- Erregu eta galderak.**

**4.- Ruegos y preguntas.**

González andreak hitz egin du, eta honakoa adierazi du:

Toma la palabra la Sra. González y expone el siguiente ruego:

"Euskal Sozialistak udal taldeak osoko bilkurari informatu gura dio uztailaren 16an kiroldegian ezbehar bat gertatu zela erabiltzaile batek pisu-ariketak egiten zituenean gimnasioan. Pisu bat askatu eta arriskua izan zen erabiltzailearentzat.

"El Grupo Municipal Socialistas Vascos queremos informar al pleno de que el día 16 de julio se produjo un accidente, mientras un usuario del Polideportivo realizaba ejercicios de pesas en el gimnasio. Una de las pesas se soltó con el consiguiente riesgo para el usuario.

Gero, erabiltzaile horrek eta gimnasioan zeuden gainontzekoek konprobatu zuten pisuak egoera berdinean zeudela. Horrexegatik, arren eskatzen da beharreko mantenamendua egitea horrelako istripurik ez izateko, eta materiala ahalik eta baldintzarik onenean mantentzea."

Posteriormente, se comprobó por ese mismo usuario y el resto de personas que se encontraban en el gimnasio, que la mayor parte de las pesas estaban en las mismas condiciones. Por lo que se ruega que para evitar males mayores se realice el mantenimiento oportuno y se mantenga todo el material en las mejores condiciones."

Jarraian, Caballero jaunak hitz egin du eta esan du, hiri erdian arratoiak daudela; beraz, arratoiak hiltzea eskatu du.

A continuación el Sr. Caballero toma la palabra e indica que se ha detectado en el centro urbano la aparición de ratas, por lo que ruega se proceda a la desratización.

Ondoren, Ochoa andreak Caballero jaunak esandakoari eutsi dio.

A continuación la Sra. Ochoa se reitera en lo expuesto por el Sr. Caballero.

Alkate andreak erantzun du, erregua aintzat hartzen duela.

Responde la Sra. Alcaldesa que toma nota del ruego.

Aurrekoetxea jaunak arren eskatu du deialdia egitea Hirigintzako informazio batzordea izateko, non Errementariñeko hondakinei buruzko informazioa emango zaien zinegotziei, hondakin arriskutsuak aipatzen direlako, eta orain arte

El Sr. Aurrekoetxea ruega que se convoque una Comisión Informativa de Urbanismo donde se informe para conocimiento de las Sras. y Sres. Concejales todo lo referente a los residuos de Rementariñe ya que se está

aldatutako lurzoruk baino ez zirela aipatzen.

haciendo mención a residuos peligrosos, cuando hasta ahora se hablaba de suelos alterados.

Alkate andreak erantzun du erregua aintzat hartu eta deialdia egingo duela informazio batzordea izateko.

Responde la Sra. Alcaldesa que toma nota del ruego y procederá a convocar la Comisión Informativa.

Jarraian, Aurrekoetxea jaunak informazioa eskatu du Alkatetzako Dekretu hauei buruz: 295, 314, 402, 410 eta 411.

A continuación, el Sr. Aurrekoetxea solicita información respecto de los siguientes Decretos de Alcaldía números, 295, 314, 402, 410 y 411.

Alkate andreak erantzun du informatuko zaiola.

Responde la Sra. Alcaldesa que se le informara.

Aurrekoetxea jaunak galdetu du ea Alkateak ezagutzen dituen Kontuen Euskal Epaitegiak egindako lanak.

El Sr. Aurrekoetxea pregunta si la Alcaldía tiene conocimiento de los trabajos que ha realizado el Tribunal Vasco de Cuentas.

Alkate andreak erantzun du, udaleko espedienteak jorratu dituzten teknikariek txosten bat egin, Kalitate Sailari bidali eta itxaroten dela hori jasotzea udaletxean irailean.

Responde la Sra. Alcaldesa que los técnicos que han trabajado los expedientes del Ayuntamiento, elaboran un informe que lo trasladan al Departamento de Calidad y se espera éste se recibirá en el Ayuntamiento hacia el mes de Septiembre.

Aurrekoetxea jaunak Idazkaritzak egindako txostena (2015eko uztailaren 14an egindako osoko bilkurari buruz) eskatu du, beharreko berraztertze errekurtsoa jartzeko xedearekin. Txosten hori ahalik eta lasterren nahi dute, eta baita sozialista taldeari ematea ere nahi dute.

El Sr. Aurrekoetxea solicita el informe realizado por Secretaría respecto del Pleno de Organización celebrado el pasado día 14 de Julio de 2015, a fin de presentar el correspondiente recurso de reposición y desean tenerlo cuanto antes y que también se entregue al Grupo Socialista.

Idazkariak txosten hori emango du Osoko Bilkura amaitzen denean.

Por parte de la Secretaria se va hacer entrega del mismo a la finalización del presente Pleno.

Besterik gabe, bilerako buruak bilkura amaitutzat jo du 18:50ean, eta nik, idazkaria naizen honek, guztia ZIURTATZEN DUT.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Presidente se levanta la sesión, siendo las 18,50 horas, de lo que yo, la Secretaria, CERTIFICO.